

# Azkenaren aztoramena



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN  
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Mundu orain hiletan bizi izan ziren arbaso orain hilen umeak gara. Orobat ondorengo umeen biharko arbaso hil oraindik biziak. Jaki-na, kiribila ez ezik, mundua bezain biribila ere bada gizaldien ibilia. Jaio, egin, egon, hil. Bizien berezko hantustetxoak besterik pentsarazi arren, ez gara bereziak. Itxaro Bordak biribil esplikatua du bere *Abaro*-ko *Being Telluric* poeman (artikulu honetarako atrebentzia handiz prosara ekarrita): “Neanderthalen umeak gara, ez gara sobera aldatu. (...) Mundua aldatzeko sortuak ginela uste genuen, debaldetan naski”. Munduek, aroek eta haien mintzoek beti dute zerbait berdin: hil eta hil ari direla aspergabe. Eta, usuenik, mutu: ehorzketatik puska batera antzeman ohi zaio argiro amaiaeren lur- eta huts-urrinari.

Bakanki, ordea, azkenak bere burua nabarmentzen du. Urtero azaltzen da hedabideren bateko orri-bazterren batean goiburua: auskalo nongo auskalo zer hizkuntzaren azken hiztuna hil dela. Eta, gero, artikuluak kontatuko du, noiz tremulu noiz morbosoa, zazpi urte lehenago hil zela azken-bigarren hiztuna, eta beraz zazpi urte igaro dituela azken-azkenak bere guraso-hizkuntza bakarrizketarako eta

ikertzaileen akuri-saiotetarako baino ezin ahoratuta.

Pentsa zer izan behar duen: hizkuntza oso bat, bere historia, bere adierazi eta bere hiztun iragan guztien oihartzun eta guzti, hizkuntza oro den itsaso zabal hori, norbere eta soilik norbere barruan osorik gotortua, barrunbe guztiak sagailoz blaitzen. Itsaso bat muku erraietan. Azken hiztunaren heriotza uhate bat da, alimaleko uhate ireki bat: braust isuriko da ur mende-tsua noragabe, eta hantxe ezereztuko betiko. Hortik aurrerakoa, nostalgia, arkeologia eta, asko jota, autopsia. Bordaren hitzak berriro: “Eraiki dugun etxetik ez da deus geldituko, gure mintzoak ulertzen ez dituztenak baizik ez direlako gutaz oroituko”. Itsasoan arbolak aldatzen ibiltzearen pareko memoria, ia-ia.

Zenbait hizkuntzak eta haien hiztunek, aldiz, patu hurbil ez hain dramatikoa omen dute: itsaso batzuk salbu-edo dira oraingoz. Baina tantak, ttanttak eta tantonak, horiek hizkuntza guztiek galtzen dituzte: hitzak, esapideak, joskerak, bustidurak. Ez da noski itogin larria, bizilegea da, hizkuntzen lerradura *naturala*, are hizkuntzen osasunaren erakusgarria. Baina mundu hil-hu-

rrenen hizkera hil-hurrenen hiztunen egonezinak umela behar du gero.

Sartu da andre edadetua kontsultara. Eseri da, poltsa magalean estu-estu, medikuarenera joaten den aldiro bezala kirioak dantzan. Sendagile gazteak esan dio test bat egin nahi diola bistako arazotxo nola doan jakiteko: galdera batzuei erantzun, irudi batzuei behatu... “Erraza da, lasai”. Irudiak hurrenez hurren: baloi bat, errepide-seinale bat... behi bat. “Eta hemen? Zer ikusten duzu hemen?”. “Behi gorri bat”, andreak erantzun. Eta medikuari aho-ertza okertu zaio nahi gabe, ia-ia antzemanekin. Baina andreak, antzeman. Kontsultaratu baino are larrituago etxeratuko da egun horretan, bere begi oraindik sanoei egotziz hizkuntza-ttanta galdu-hurren baten inkomunikazioak sortutako arazoa. Jaio zen munduan bizikide zuen mintzoa baino gehiago irauten ari delako sentipen bitxi aztoragarria bor-bor, oharkabean.

Ez alferrik, “Ez dun nostalgia, garai hura ez zunan hobea” esaten dio andre espontaneo batek Maitane protagonistari Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena* liburuko ipuinetako batean. “Zer da orduan”, Maitanek galde. “Nik zer zakinat ba, azkena geratzeko beldurra igual”. ●